

**1/2026 GOMENDIOA, MARTXOAREN 3KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEARENA.**

HARTZAILEAK: SAILETAKO ZERBITZU-ZUZENDARITZAK EDO KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARITZAK, ETA ORGANISMO AUTONOMOETAKO ZUZENDARITZAK.

XEDEA: PREZIOAZ BESTELAKO ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK ETA BESTE IRIZPIDE KUALITATIBO OBJEKTIBO BATZUK SARTZEA EAE-KO KONTRATAZIO PUBLIKOAREN EREMUAN.

1.- SARRERA

Kontratazio publikoa helburu eta politika publikoak lortzeko tresna garrantzitsuenetako bat da, aukera ematen baitie sektore publikoko administrazio eta entitateei premia kolektiboak asetzeko, ondasunak, zerbitzuak eta obrak eskuratuz.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da kontratu publikoak adjudikatzeko irizpideak behar bezala hautatzea eta haztatzea, baliabide publikoen erabileran efizientzia, gardentasuna eta objektibotasuna bermatzeko, bai eta prestazioen kalitatea sustatzeko eta gizarte-, ingurumen- eta berrikuntza-helburuak lortzeko ere.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKL), arlo horretako Europako zuzentarauen (2014/23/EB eta 2014/24/EB) transposizioa eginez, printzipio hau finkatu du: kontratuak adjudikatzeko, oro har, kalitate-prezio erlazio onenean oinarritutako hainbat irizpide erabili behar direla, erlazio hori irizpide ekonomiko eta kualitatiboen bidez ebaluatuta. Arau-orientazio horrek prezioaren nagusitasun tradizionala gainditzeko beharrari erantzuten dio, faktore erabakigarri bakarra izan baita tradizioz; alde horretatik, balio erantsi handiagoa ekarriko duten eta premia publikoei modu eraginkorragoan erantzungo dieten eskaintzen hautaketa sustatu nahi da, bat etorritz berdintasunaren, gardentasunaren eta lehia askearen printzipioekin (SPKLren 132. art.). Hori guztia, Kontratazio Publikoaren Europako Estrategiaren eta Kontratazio Publikoaren Estrategia Nazionalaren jarraibideen arabera.

Alde horretatik, SPKLk eta kontratazio publikoaren arloko Europako zuzentzaruek ezartzen dute irizpide kualitatiboek, langileen kualifikazioarekin lotutako alderdiez gain, ingurumen-, gizarte-, berrikuntza-, irisgarritasun- eta antolamendu-alderdiak jaso ditzaketela eta jaso behar dituztela, bai eta, besteak beste, saldu osteko zerbitzuari eta laguntza teknikoari buruzko baldintzak ere, baldin eta kontratuaren objektuarekin lotuta badaude eta modu objektiboan formulatuta badaude. Funtsezkoa da irizpide horiek administrazio-klausula partikularren

agirietan (AKPA) eta lizitazio-iragarkietan behar bezala definitzea eta haztatzea, prozeduraren gardentasuna eta eskaintzen ebaluazio efektibo eta ez-diskriminatzailea bermatzeko.

Hala, 2014/24/EB Zuzentarauaren 67. artikulua arabera, kontratuen adjudikazioa «ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintzaren» irizpideari jarraituz egin behar da, eta horrek esan nahi du prezioa ez ezik, beste alderdi batzuk ere kontuan hartu behar direla, hala nola kalitatea, zerbitzua eta jasangarritasuna.

Halaber, legegintzaldi honetan, Eusko Jaurlaritzak konpromiso irmoa hartu du kontratazio publikoan prezioaz bestelako irizpide objektiboen erabilera egokia bultzatzeko, adjudikazio-prozeduretan irizpide horiei pisu espezifiko handiagoa emanez. Apustu horren bidez, eskaintzen hautaketa prezioan bakarrik ez oinarritzeko beharra bermatu nahi da; horrela, lehentasuna emango zaio gizarteari balio erantsi erreala emango dioten ondasunak, zerbitzuak eta obrak lortzeari, berrikuntza, jasangarritasuna¹ eta gizarte-erantzukizuna sustatuz. Horretarako idatzi da gomendio hau; hots, kalitatearen balorazioan gardentasuna, objektibotasuna eta eraginkortasuna indartzen dituzten tresnak biltzeko asmoz, irizpide kualitatibo objektiboak neurgarriak eta egiaztagarriak direla eta kontratuaren objektuarekin zuzenean lotuta daudela ziurtatze aldera, bat etorriaz Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren (aurrerantzean, KEAO) doktrinan jasotako printzipioekin.

Alde horretatik, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak, Kontratazio Publikoa Euskadin plataformako datuak aztertu ondoren, ikusi du prezioaren irizpidea erabiltzen dela, lehentasunez, kontratuak adjudikatzeko faktore nagusi gisa. Horrek agerian uzten du jarraibide argiak ezarri beharra dagoela kalitate-irizpideen erabilera sustatzeko; hala, hautatutako eskaintzak ekonomikoki lehiakorrek direla ez ezik, kalitate-estandarrei erantzuten dietela ere bermatuko da. Hori guztia, Administrazioak eskaintzarik onena adjudika dezan; hau da, kalitate-prezio erlaziorik onena duena.

Duela gutxi argitaratu da Europako Parlamentuaren Kontratazio publikoari buruzko txosten-proiektua —2024/2103 (INI)—. Proiektu horrek kontratazio publikoaren ikuspegi geopolitikoaren beharra azpimarratzen du, eta zalantzan jartzen du preziorik baxuenari adjudikatzeko ereduak. Ikuspegi horren arabera, kontratazio publikoaren eraginkortasuna mugatu egiten da zenbait alderdi alde batera uzten direnean, hala nola kalitatea, berrikuntza eta epe luzerako balioa. Txostenean, kalitatean eta berrikuntza teknologikoan oinarritutako «ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintzaren» printzipiorantz aldatzea proposatzen da. Gainera, nabarmentzen da prezio baxuenaren ereduak ez dituela kontuan hartzen jasangarritasuna eta epe luzeko errentagarritasuna, eta horrek epe motzean aurrezteka ekar badezake ere, etorkizuneko kostuak handiagoak izatea ere badakar. Azken batean, diru publikoaren kudeaketa efizientea bermatu nahi da, kalitatea eta eragin estrategikoa lehenetsiko dituzten kontratazio-erabakien bidez.

Beraz, esan behar da kalitate hobea bilatzeak ez duela esan nahi efizientziari uko egitea; aitzitik, efizientzia lortzeko, kalitate-helburuak bete behar dira, premia publikoak hobeto asetze aldera. Europako Parlamentuaren txosten-proiektuaren gogoeten ildotik, prezioari soilik erreparatzean oinarritutako kontratazio baten ondorioa zera izan daiteke: kalitate- edo

¹ Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programaren helburuetako bat da lizitazioen % 60k ingurumen-klausulak izatea lortzea 2030erako.

errendimendu-atalase onartezineko obrak, hornidurak edo zerbitzuak lortzea. Horregatik, kalitate-irizpideak lehenestek lotura zuzena du funts publikoen erabilera efizientearekin eta, ondorioz, administrazio on batekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 28.d) artikulua ezartzen duenez, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eginkizun hau bete behar du: «Kontratazioaren alorrean egokitzat hartzen dituen arauak, zirkularrak, jarraibideak edo gomendioak prestatzea eta proposatzea, dagozkion eskumenen eremuan».

Gomendio honen helburua da botere adjudikatzaleei eta kontratazio publikoaren arduradunei ikuspegi sistematiko eta eguneratua ematea prezioaz bestelako adjudikazio-irizpideen erabilera egokiari buruz, eta, bereziki, irizpide kualitatibo objektiboak behar bezala erabiltzeari buruz, indarrean dagoen araudiaren eta administrazio- eta jurisprudentzia-doktrina garrantzitsuenaren arabera.

Hala, modu praktiko eta zehatzean joratu nahi dira honako hauek: prezioaz bestelako adjudikazio-irizpideek bete behar dituzten baldintza legal eta teknikoak —arreta berezia jarrita irizpide kualitatiboetan—; irizpide horiek kontratuaren objektuarekin duten lotura (SPKL, 145.6 art.)²; haien formulazioa eta haztapena; eta irizpideok kontratazio-espeditentean aplikatu eta justifikatzeko praktika onenak. Gainera, araudiak kalitate-irizpideen lehentasuna eskatzen duen kasuak aztertzen dira, hala nola izaera intelektualeko zerbitzu-kontratuak edo gizarte-edo ingurumen-helburu espezifikoak bilatzen dituztenak.

Beraz, helburua da tresna erabilgarri eta eguneratu bat eskaintzea kontratazio publikoko prozedurak prestatzearekin eta izapidetzearekin lotutako erabakiak hartzeko, eskaintza onuragarriena (kalitateari eta eraginkortasunari dagokionez) hautatzea errazte aldera, eta kudeaketa publikoa etengabe hobetzen eta kontratazio publikoaren oinarrian dauden printzipioak eta helburuak betetzen laguntze aldera.

2. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEEN IZAERA ETA HELBURUA.

SPKLk argi eta garbi bereizten ditu irizpide kuantitatiboak (ekonomikoak) eta irizpide kualitatiboak kontratu publikoak esleitzeko orduan, eta horietako bakoitzerako araubide espezifiko bat eta helburu bereizi bat ezartzen du³.

²Ikusi 143/2021 Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren titularrarena, 2021eko irailaren 15ekoa, udalak energia-zerbitzuak emateko eta argiteria publikoa eta semaforoak mantentzeko egindako kontratu bati buruzkoa. Mantentze Lan Integraleko eta Energia Zerbitzuetako Enpresen Elkarteak (AMI) errekurtsoa jarri zien baldintza-agiriei, gizarte-erantzukizuna kudeatzeko sistema bat edukitzeagatik puntuak ematen zituen adjudikazio-irizpide bat sartu zelako (IQNet SR10: 2015). KEAOK ondorioztatzen du aurkaratutako irizpideak ez duela lotura zuzenik kontratuaren objektu diren prestazioekin (energia-kudeaketa, mantentze-lanak, berme osoa, hobekuntza-obra), eta, beraz, ez duela betetzen SPKLren 145.6 artikulua eskatutako lotura-betekizuna.

Ikusi: Kontratuei buruzko Errekurtsoen Auzitegi Administratibo Nagusiaren (aurrerantzean, KEAAN) urriaren 26ko 972/2018 Ebazpenak zehazten du *conditio sine qua non* dela adjudikazio-irizpideak kontratuaren objektuari lotuta egotea, eta ulertuko da baldintza hori betetzen dela adjudikazio-irizpidea kontratu horren indarrez eman behar diren prestazioei dagokienez edo haiek integratzen dituenean, edozein alderditan eta bizi-zikloko edozein etapatan; izan ere, bestela, tratu-berdintasunaren printzipioa urratuko litzateke, eskaintzen arteko diskriminazioa eraginez.

³ Alde horretatik, SPKLren 145. artikulua (adjudikazio-betekizunei eta -irizpide motei buruzkoa da) 2. apartatuan adierazten du kalitate-prezio erlazio onena irizpide ekonomikoaren eta irizpide kualitatiboaren arabera ebaluatuko dela.

a. Irizpide kuantitatiboak

Irizpide kuantitatiboak kontratuaren prezioari eta bizi-zikloaren kostuari buruzkoak dira batez ere. Irizpide horiek eskaintzen balorazio automatikoa eta matematikoa egiteko aukera ematen dute, lizitzaileen artean erraz konpara daitezkeen zenbateko edo ehunekoetan oinarritzen baitira. Prezioa da irizpide tradizionalena eta zuzenena, eta bizi-zikloaren kostuak, berriz, balorazio zabalagoa eskatzen du. Balorazio horrek produktuari, obrari edo zerbitzuari lotutako kostu guztiei erreparatzen die (hau da, eskuratzetik deuseztatzerara doazen fase guztietakoei), barne direla erabilerarekin, mantentze-lanekin, birziklatzearekin eta ingurumeneko kanpo-efektuekin lotutakoak, baldin egiaztagarriak eta kuantifikagarriak badira.

Irizpide kuantitatiboen ezaugarri nagusia konparatzeko erraztasuna da; horrek kontratazio-organoaren diskrezionalitate-marjina murrizten du, eta gardentasuna eta lizitzaileen arteko tratu-berdintasuna bermatzen ditu⁴. Gainera, SPKLk eskatutakoari jarraituz, irizpide kualitatiboak erabiltzen direnean ere, irizpide horiekin batera kostuekin lotutako irizpide bat gutxienez sartu behar da, hala nola prezioa edo bizi-zikloaren kostua.

b. Irizpide kualitatiboak

Bestalde, irizpide kualitatiboak prezio hutsa gainditzen duten eta prestazioaren kalitate orokorrean eragina duten alderdiak baloratzera bideratuta daude. SPKLren 145.2 artikulua kontratu bat adjudikatzeko erabil daitezkeen irizpide kualitatibo batzuk zerrendatzen ditu, eta irizpide horiek beti egon behar dute kontratuaren objektuari lotuta. Besteak beste, kalitatea, balio teknikoa, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, irisgarritasuna, diseinu unibertsala eta gizarte- eta ingurumen-irizpideak nabarmentzen dira. Azken horietako batzuk dira, adibidez, emisioak murriztea, energia aurrezteak, kolektibo kalteberen gizareratzea, genero-berdintasuna, lana eta familia bateragarri egitea, lan-baldintzak hobetzea, langileen prestakuntza, edo irizpide etikoak eta gizarte-erantzukizuneko irizpideak aplikatzea.

Laburbilduz, hau da bi irizpide mota horien arteko desberdintasun nagusia: irizpide kuantitatiboak kontratuaren objektuaren alderdi ekonomikoei buruzkoak dira, eta prezioarekin edo kostuekin lotuta daude; irizpide kualitatiboak, aldiz, kontratatu beharreko prestazioaren gainerako funtsezko ezaugarriei buruzkoak dira, eta eragina dute prestazio hori jasotzeko moduan, baldintzetan eta kalitatean.

3. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEEN BETEKIZUNAK

⁴Ikusi: 2019ko martxoaren 18ko 59/2019 Ebazpenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren titularrarenak, zuzenean dihardu adjudikazio-irizpideak ezartzeaz eta haiek tratu-berdintasunaren printzipioarekin bateragarri izateaz, Zestoako Udalarentzako arkitektura-aholkularitzako zerbitzu-kontratu baten testuinguruan. Ebazpen horrek aitortzen du esperientzia profesionala irizpide baliozkoa izan daitekeela izaera intelektualeko kontratuetan (hala nola arkitektura-zerbitzuak), SPKLren 145.2 artikulua eta EBJAren jurisprudentziaren arabera. Alabaina, baloratutako esperientzia toki-administrazioan eskuratutakora mugatzea ez dago behar bezala lotuta kontratuaren objektuarekin, eta justifikatu gabeko abantailak ematen dizkie administrazioarekin kontratatu dutenei. Horrek SPKLren 40.b artikulua eta tratu-berdintasunaren printzipioa urratzen ditu (SPKLren 1. art.).

Ikusi: 750/2022 Ebazpena, 2022ko ekainaren 23koa, KEAANena; ebazpen horren arabera, adjudikazio-irizpideak ezarri, eskalako ekonomiari laguntzen dion edo hura ahalbidetzen duen eskaintzen konparazio bat egin nahi da, eskaintzarik onena lortzeko, betiere tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatuz.

Adjudikazio-irizpideek bete behar dituzten baldintza legal eta teknikoei dagokienez —arreta berezia jarrita prezioaz bestelako irizpide objektiboetan—, kontratuaren objektuarekin duten lotura eta irizpideon formulazioa eta haztapena nabarmendu behar dira, bai eta haiek kontratazio-espeditentean aplikatu eta justifikatzeko praktika onenak ere. Kontratazio publikoaren arloko Espainiako eta Europako araudiak ezartzen du kontratuak esleitzeko, oro har, kalitate-prezio erlazio onenean oinarritutako hainbat irizpide erabili behar direla, eta erlazio hori irizpide ekonomiko eta kualitatiboen bidez ebaluatu behar dela. Irizpide-ugaritasun horri esker, prezioa ez ezik, kalitatearekin lotutako beste alderdi garrantzitsu batzuk ere balora daitezke, baldin kontratuaren objektuarekin lotuta eta modu objektibo eta gardenean formulatuta badaude.

- a) Kontratuaren objektuarekin lotuta egotea⁵: SPKLren 145.6 artikulua arabera, irizpide bat kontratuaren objektuarekin lotuta dagoela ulertuko da adjudikazio-irizpidea kontratu horren indarrez eman behar diren prestazioei dagokienean edo haiek integratzen dituenean, edozein alderditan eta bizi-zikloko edozein etapatan, barne direla produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-prozesuetan eta bizi-zikloaren beste etapa batzuetan esku hartzen duten faktoreak, baita kontratuaren substantzia materialaren zati bat ez direnean ere. Eskakizun horrek bermatzen du hautatutako irizpideek Administrazioaren benetako premiei erantzungo dietela, eta ez direla sartuko premia horiekin zerikusirik ez duten edo diskriminatzaileak diren elementuak.
- b) Irizpideak formulatzea. SPKLk eta Europako zuzentzauek eskatzen dute irizpideek objektiboak, argiak eta zehatzak izan behar dutela, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak errespetatuz. Irizpideek ezin diote erabakitzeko askatasun mugagabea eman kontratazio-organoari, eta eskaintzak benetako lehiako baldintzetan ebaluatzeko aukera eman behar dute. Gainera, lizitatzailleek emandako informazioa benetan egiaztatzeko aukera emango

⁵ Ikusi: 148/2022 Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren titularrarena. Bertan, adjudikazio-irizpide jakin batzuk —batez ere ingurumenekoak eta langileen prestakuntzari buruzkoak— kontratuaren objektuari egokitzen zaizkion aztertzen da, kontratazio publikoaren esparruan. Ildo horretan, ulertuko da adjudikazio-irizpideek kontratuaren objektuarekin lotuta egon behar dutela dioen baldintza betetzen dela adjudikazio-irizpidea kontratu horren indarrez eman behar diren prestazioei dagokienean edo haiek integratzen dituenean, edozein alderditan eta bizi-zikloko edozein etapatan. Horrek barne hartzen ditu ekoizpenarekin, prestazioarekin edo merkaturatzearekin zerikusia duten faktoreak, baita kontratuaren objektuaren substantzia materialaren zati bat ez direnean ere. Adierazten du SPKLk berariaz jasotzen duela adjudikazio-irizpideek kontuan hartu ditzaketela ingurumenaren eta gizartearen ikuspegitik jasangarriak eta bidezkoak diren ekoizpen-, prestazio- edo merkaturatze-moduak. Aurreikuspen hori lotuta dago 2014/24/EB Zuzentzauearen transposizioarekin; izan ere, xedapen horretan ere jasotzen da kontratazio publikoko prozeduretan gizarte- eta ingurumen-kontsiderazioak sartzea.

Preskripzio teknikoaren agirian (PTA) emakidadunari ezarritako betebeharrak ikusita, argi dago ingurumen-irizpideen eta langileen prestakuntzari lotutako irizpideen balorazioa kontratuaren objektuarekin lotuta dagoela. Izan ere, PTAk berariaz eskatzen du eremu horietan ekintzak egitea, eta horrek justifikatzen du haiek adjudikazio-irizpide gisa sartzea. Hala, lizitatzaillearen proposamenak botere adjudikatzaileak lortu nahi dituen helburuetara orientatzeko funtzioa betetzen dute irizpide horiek, SPKLn aurreikusitakoaren ildotik.

Halaber, 148/2022 Ebazpenak aipatzen du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (EJ) 2012ko maiatzaren 10eko Epaiak (C-368/10)—2014/24/EB Zuzentzauearen aurrekaria da— aitortzen duela adjudikazio-irizpideek abantaila ekonomikoak identifika ditzaketela, baldin onuragarri badira bai botere adjudikatzailearentzat edo prestazioaren zuzeneko erabiltzaileentzat, bai beste pertsona batzuentzat, hala nola kontratua egikaritzen duten langileentzat. Interpretazio horri esker, ekoizleei mesede egiten dieten zenbait irizpide (esaterako, ondasunek jatorria «bidezko merkataritzan» izatea) onartu ahal izan dira, kontratuaren objektu den prestazioaren zati zuzena ez izanda ere. Ondorioz, ingurumen- eta gizarte-arloko adjudikazio-irizpideak eta langileen prestakuntzari lotutakoak sartzea erabat justifikatuta eta kontratuaren objektuari lotuta dago, baldin PTAk eremu horietako ekintzak aurreikusten baditu. Jardunbide hori bat dator SPKLrekin eta 2014/24/EB Zuzentzauearekin, eta EBJAren jurisprudentzia-babesa du.

duten zehaztapenak erantsi behar dira, ebaluazioa egiaztagarria eta erreproduzigarria izan dadin. Adjudikazio-irizpide gisa hobekuntzak erabiltzen badira, behar bezala zehaztuta egon beharko dute baldintzei, mugei, modalitateei eta ezaugarriei dagokienez, bai eta kontratuaren objektuarekin izan behar duten loturari dagokionez ere.

- c) Adjudikazio-irizpideak haztatzea. Araudiak eskatzen duenez, balorazio-irizpideetako bakoitzari zer haztapen erlatibo ematen zaion zehaztu beharko da administrazio-klausula partikularren agirian edo deskripzio-agirian, irizpide bakarra prezioa den kasuetan izan ezik; haztapen erlatibo hori gehieneko tarte egoki bat duen balio-banda bat zehaztuz adierazi ahalko da. Irizpideak haztatzea ezinezkoa bada behar bezala justifikatutako arrazoi objektiboak direla-eta, garrantziaren arabera zerrendatuko dira irizpideok, garrantzi handiena duenetik garrantzi txikiena duenera. Haztapen-eskakizun horrek prozeduraren gardentasunari eta segurtasun juridikoari laguntzen dio, eta lizitzaileei aukera ematen die alde zuzenetik jakiteko zer garrantzi erlatibo duen irizpide bakoitzak eskaintzak baloratzean.
- d) Justifikazio egokia kontratazio-espeditentean. Kontratazio-organoak arrazoitu⁶ egin behar ditu irizpideen aukeraketa eta haztapena, eta azaldu nola laguntzen duten kalitate-prezio erlazio onena lortzen eta nola dauden lotuta kontratuaren objektuarekin. Justifikazio horrek ez du erabili behar argudio orokorrik edo estereotipaturik, eta kontratuaren ezaugarri zehaztuetan eta ase nahi diren premia publikoetan oinarritu behar du.
- e) Errendimenduaren ebaluazio konparatiboa. Adjudikazio-irizpideek bide eman behar dute eskaintza bakoitzaren errendimendu-mailaren ebaluazio konparatiboa egiteko, kontratuaren objektuari eta zehaztapen teknikoari erreferentzia. Irizpideak balio behar du baloratzeko definitutako alderdiak zer neurritan hobetzen duen kontratuaren objektuaren prestazioaren errendimendua, kontratazio-organoaren beharrak hobeto asetzen lagundu dezan, bai prestazioaren berezko alderdiei dagokienez, bai kontratuari lotutako helburu estrategikoak lortzeari dagokionez.

Ildo horretan, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen 2/2024 txostenak, kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzkoak, adierazten duen bezala, «baldintza-agirietan adjudikazio-irizpide gisa sartutako klausula sozial horiek kontratuaren objektuarekin lotura izaten dute soilik adjudikazio-irizpidea egoteak kontratuaren objektua den

⁶ 66/2025 Ebazpenak, apirilaren 14koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren titularrarenak, Deba Barreneko Garapen Ekonomikorako Elkarte – Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba SAK (DEBEGESA) izapidetutako «Debako (Gipuzkoa) udalerriko argiteria publikoaren sistema berritzeko lehen fasea hornitzea eta gauzatzea, lehenengo fasea (CM01 eta CM03)» kontratuaren adjudikazioaren aurka TECUNI SA enpresak jarritako kontratazio-arloko errekurtso bereziari buruzkoak, honako hau ezartzen du kontratazio publikoaren arbitrarioritasunari eta printzipioen urraketari dagokionez: ez dela nahitaezkoa lizitazioa arautzen duten baldintza-agirietan eskaintzak baloratzeko erabiliko den metodoa ezartzea (Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016/07/14ko epaia, C-6/15, ECLI: EU: C: 2016:555), baina KEAOK jada adierazi duela, 68/2024 Ebazpenean, kontratazio-organoak baldintza-agirietan metodo bat ezartzea erabaki badu «hura betetzea eskaintzak ebaluatzeko diskrezionalitate tekniko mugatzen duen funts arautuaren zati bat dela, eta haren edukia loteslea dela kontratazio-organoarentzat eta lizitzaileentzat, garaiz eta behar bezala aurkaratu ez direlako irmo bihurtu diren baldintza-agirietako klausulei dagokien bezala».

prestazioa hobetzen laguntzen duenean eta kontratuaren errendimenduaren arabera baloratu daitekeenean». Printzipio hori adjudikazio-irizpide guztiei aplika dakieke, sozialak, ingurumenekoak edo kalitate teknikokoak izan.

Araudiak, gainera, kalitate-irizpideen lehentasuna eskatzen duten kasuak aurreikusten ditu. Hala, SPKLren IV. eranskineko zerbitzu-kontratuetan, bai eta objektutzat izaera intelektualeko prestazioak dauzkaten kontratuetan ere (adibidez, ingeniari- eta arkitektura-zerbitzuak), kalitatearekin lotutako irizpideek eskaintzen balorazioan eman daitekeen puntuazioaren % 51 hartu behar dute gutxienez.

Gogoan izan behar da IV. eranskineko kontratuak fase guztietan —eta, bereziki, adjudikazio-irizpideen definizioan— bermatu behar dituztela kalitatea, jarraitutasuna, irisgarritasuna, eskuragarritasuna eta erabiltzaileen parte-hartzea, eta aukera eman behar dutela langileek kolektibo kalteberentzako prestazioetan duten esperientzia baloratzeko.

Era berean, gizarte- edo ingurumen-helburu espezifikoak dituzten kontratuetan, irizpide kualitatiboak hautatzean eta haztatzean, premia publikoei ahalik eta ondoen erantzungo dieten kalitate handiko prestazioak lortzea bermatzea bilatu behar da⁷.

⁷ Auzitegi Gorenaren 390/2025-ECLI: ES: TS: 2025-1723 Epaiak administrazio-praktikan behin eta berriz errepikatzen den auzi garrantzitsu bat ebazten du, kalitatearekin lotutako irizpideek izaera intelektualeko prestazioen kontratu publikoetan izan behar duten gutxienerako pisuari buruzkoa.

Algecirasko Udalak proiektu bat idazteko eta obra baten zuzendaritza fakultatiboa egiteko sustatutako kontratu batean du jatorria auziak; kontratu hori prozedura ireki sinplifikatu bidez adjudikatu zen. Baldintza-agirietan, prezioak % 55 hartzen zuen, eta kalitateari lotutako irizpideak, berriz, % 45era baino ez ziren iristen; banaketa horren legezketasunaren oinarri gisa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen (SPKL) 159.1.b) artikulua aipatzen zen, zeinak % 45era mugatzen baitu balio-judizioaren mende jarritako irizpideen puntuazioa prozedura mota horretan.

Alabaina, SPKLren 145.4 artikulua ezartzen du, agindu gisa, kalitatearekin lotutako irizpideek eskaintzen balorazio osoaren % 51, gutxienez, izan behar dutela izaera intelektualeko prestazio bat xede duten zerbitzu-kontratuetan. Gatazka bi aginduen arteko ustezko talkan zegoen: % 45eko muga salbuespentzat hartu zitekeen ala kalitateko gutxienerako % 51ko betekizunarekin batera hartu behar zen kontuan.

Auzitegi Gorenak doktrina hau ezarri zuen:

1. Kalitatea ez da balio-judizioen bidez ebalua daitezkeen irizpideekin soilik identifikatzen; aitzitik, kalitate-irizpideak automatikoki zein balorazio subjektiboaren bidez ebalua daitezkeen alderdiekin artikulatu daitezke.
2. SPKLren 159.1.b) artikuluko % 45eko mugak balio-judizioko irizpideak baino ez ditu mugatzen, eta ez kalitatekoak oro har. Beraz, ezin da interpretatu SPKLren 145.4 artikulua aginduaren salbuespen gisa (artikulu horrek kalitate-irizpideak —automatikoak eta balio-judiziokoak— puntuazio osoaren % 51 izatea eskatzen du).
3. SPKLren 145.4 artikuluko xedapena aginduzkoa da, eta ez du salbuespenik onartzen, ezta prozedura ireki sinplifikatua ere. Legegileak horrelako kontratuaren kalitatearen nagusitasuna ziurtatu nahi izan zuen, prezioa faktore erabakigarria izan ez zedin, horrek arriskuan jar baitezake interes publikorako funtsezkoa den kalitate tekniko edo sormenezkoa.
4. «Kalitatearekin lotutako irizpideak» eta «balio-judizio bidez ebalua daitezkeen irizpideak» kontzeptuak bereiztea: ez dira baliokideak, ezta trukagarriak ere. Kalitate-irizpideak automatikoki edo balio-judizioen bidez balora daitezke, eta biak hartu daitezke aintzat kontratu intelektualetarako eskatzen den gutxienerako % 51rako.

Auzitegi Gorenak hainbat inplikazio praktiko eta eskakizun ezartzen ditu Administrazioarentzat:

- Baldintza-agiriak berrikustea: Auzitegi Gorenak administrazio-klausulen agiriak berrikusteko eta, hala badagokio, aldatzeko betebeharra ezartzen du, kalitaterako eskatzen den % 51ko gutxienerako ehuneko bat betetzeko, etorkizunean aurkaratzerik eta balio-gabetzerik izan ez dadin.

Azkenik, adjudikazio-irizpideak definitzeko, aplikatzeko eta justifikatzeko jardunbide egokiak ezartzea gomendatzen da, hala nola irizpide objektibo eta neurgarriak erabiltzea, irizpideak eta haien haztapena argi argitaratzea baldintza-agirietan eta lizitazio-iragarkietan, balio-judizioaren mendeko irizpideak baloratzeko aditu-batzordeak eratzea —irizpide horiei dagokien pisua automatikoki ebalua daitezkeen irizpideena baino handiagoa denean—, eta prozesu osoaren dokumentazio guztia jasotzea kontratazio-espeditentean.

Alde horretatik, adjudikazio-irizpideak eta haien haztapena administrazio-klausula partikularren agirietan edo deskripzio-agirian jaso behar dira, bai eta lizitazio-iragarkian ere, ahalik eta gardentasun handiena bermatzeko eta lizitatzaleei prozeduraren arauak aldeztu aurretik ezagutzeko aukera emateko. Era berean, espeditentean zehatz eta berriaz justifikatu behar dira adjudikazio-irizpideak, irizpide bakoitzak kalitate-prezio erlazio onena lortzen nola laguntzen duen eta kontratuaren objektuarekin nola lotzen den azalduz, argudio orokorrik edo estereotipaturik gabe.

Jardunbide horiek gardentasuna, tratu-berdintasuna eta efizientzia sustatzen dituzte kontratazio publikoan, eta operadore ekonomikoek sisteman duten konfiantza indartzen dute.

4. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEEN HAZTAPENA EDO BALORAZIO-ARAUAK

Kontratu publikoetako adjudikazio-irizpideen haztapena zuzenean lotuta dago erabilitako kontratazio-prozedura motarekin. Hala, SPKLk arau espezifikoak ezartzen ditu puntuak irizpide automatikoen eta balio-judizioaren mendeko irizpideen artean banatzeko, hautatutako prozeduraren arabera⁸.

Hortaz, adjudikazio-irizpide bakoitzari esleitutako haztapan erlatiboa zehaztu behar da administrazio-klausula partikularren agirietan edo deskripzio-agirian, eta gehieneko zabalera egokia duen balio-banda baten bidez adierazi ahal izango da.

a. Prozedura irekia (SPKLren 146.2 art.):

- Irizpideen haztapena:

-
- Errefortzu teknikoa: Adjudikazio-irizpideen diseinu zehatzagoa eskatzen da, kalitatearen puntuazio egokia bermatzeko kontratu horietan, prezioaren gaineratik.
 - Justifikazio indartua: Irizpideen ehunekoen banaketa arrazoitu egin behar da, eta zorrotz egokitu indarrean dagoen araudira, legezotasuna eta gardentasuna ziurtatzeko.

Laburbilduz, Auzitegi Gorenaren 390/2025 Epaiak, doktrina bateratzeaz gain, orain arte sortutako nahasmendua konpontzen du; izan ere, kalitatearen nagusitasuna finkatzen du prestazio intelektualen kontratazio publikoaren printzipio gidari gisa. Horrez gain, adierazten du kalitate-irizpideekin lotutako % 51ko minimoa nahitaezkoa dela prozedura ireki sinplifikatuan ere, eta balio-judizioko irizpideen % 45eko mugak ez duela salbuesten gutxieneko hori betetzetik, bi aginduak bateragarriak eta guztiz aplikagarriak baitira. Horrela, Administrazioak balio tekniko eta sortzaile handiko zerbitzuak lortzea bermatzen da, bat datozenak interes publikoarekin eta gastu publikoaren efizientziarekin.

⁸ SPKLren 146. artikulua, adjudikazio-irizpideak aplikatzeari buruzkoak, 2. apartatuan xedatzen duenez, «adjudikazio-irizpide ugari erabiltzen direnean, haiek aukeratzeko, lehenetsua emango zaie, ahal dela, baldintza-agirietan ezarritako formulen aplikazio hutsez lortzen diren zifra edo ehunekoen bidez kontratuaren objektuan balora daitezkeen ezaugarri buruzkoak direnei».

Lehentasuna emango zaie formulen bidez balora daitezkeen irizpide automatikoei. Balio-judizioaren mendeko irizpideek irizpide automatikoak gainditzen badituzte, aditu-batzorde batek edo organismo tekniko espezializatu batek baloratuko ditu.

b. Prozedura ireki sinplifikatua (SPKLren 159. art.):

- Irizpideen haztapena:
 - Irizpide automatikoak (kuantitatiboak eta kualitatiboak): % 75, gutxienez
 - Balio-judizioen mendeko irizpideak (kualitatiboak): % 25, gehienez
 - Prestazio intelektualetan, hala nola ingeniari-tza- eta arkitektura-zerbitzuetan: % 45, gehienez

c. Prozedura ireki sinplifikatu laburtua (SPKLren 159.6. art.):

- Irizpideen haztapena:
 - Formulen bidez baloratzen diren irizpide automatikoak baino ezin dira aplikatu.

d. SPKLren IV. eranskineko zerbitzu-kontratuetan eta prestazio intelektualak ematen diren kontratuetan, kalitatearekin loturiko irizpideek eman daitezkeen puntuazioaren % 51, gutxienez, izan beharko dute.

Laburpen gisa, taula hauek erantsi dira:

Prozedura	Irizpide automatikoak (kuantitatiboak eta kualitatiboak)	Balio-judizioen mendeko irizpideak (kualitatiboak)
Irekia	Lehentasuna emango zaie formulen bidez balora daitezkeen irizpide automatikoei. Balio-judizioaren mendeko irizpideek irizpide automatikoak gainditzen badituzte, aditu-batzorde batek edo organismo tekniko espezializatu batek baloratuko ditu.	
Ireki sinplifikatua	≥ % 75	≤ % 25
Ireki sinplifikatua (Prestazio intelektualak)	≥ % 55	≤ % 45
Ireki sinplifikatu laburtua	Formulen bidez balora daitezkeen irizpide automatikoak soilik	

	Irizpide kuantitatiboak (formula bidez)	Irizpide kualitatiboak (formula edo balio-judizio bidez)
Prestazio intelektualak	≤ % 49	≥ % 51

e. Adjudikazio-prozedura zenbait fasetan antolatzen bada, irizpide kualitatibo guztien puntuazioaren ehuneko 50eko gutxienerako atalasea ezarriko da hautaketa-prozesuan aurrera

egin ahal izateko. Irizpide kualitatiboak balio-judizioen mendeko irizpideak nahiz ebaluazio automatikokoak izan daitezke⁹.

Garrantzitsua da adieraztea proposamenak baloratzeko bi une dauden prozedura irekietan — hau da, balio-judizioen gutun-azala eta formulen gutun-azala dutenetan (bigarren horretan, prezioaz gain, automatikoki baloratutako irizpide kualitatiboak ere sartzen dira, formulen, puntuen eta ehunekoen mende daudenak)—, botere adjudikatzailerik gutxieneko baldintzak ezar ditzaketela baldintza-agirietan ebaluazio teknikoari dagokionez, aurkeztutako eskaintzak ondorengo ebaluazio batetik kanpo gera daitezen, baldin ebaluazio teknikoaren amaieran aurrez zehaztutako gutxieneko puntuazio batera iristen ez badira. Jarduteko modu horrek ez du mugatu nahi prezioan oinarritutako ebaluazioaren mende dauden eskaintzen kopurua, eskaintza guztiek bete baititzakete gutxieneko baldintza horiek, hasiera batean¹⁰.

SPKLren 146.3 artikuluan aurreikusitako mekanismoa erabiltzeak aukera ematen du irizpide teknikoaren balorazioan gutxieneko kalitate-atalase bat ezartzeko, atalase hori gainditzen duten eskaintzak soilik ebalua daitezkeen ekonomikoki. Formula horri esker, ez zaizkie kontratuak adjudikatzen prezio baxuak izan arren kalitate-, funtzionaltasun- edo errendimendu-maila egokiak bermatzen ez dituzten proposamenei. Ondorioz, alderdi kualitatiboek ebaluazioan duten garrantzia indartzen da, eta ziurtatu egiten da adjudikazioa ekonomiaren aldetik oro har onuragarriena den eskaintzan oinarritzen dela, lizitatzailerik arteko tratu-berdintasunaren printzipioa une oro errespetatuz.

Adjudikazio-prozedura faseka edo, hala badagokio, eskaintza baloratzeko une desberdinetan antolatzeak aukera (gutxieneko puntuazio tekniko batekin) tresna erabilgarria da eskaintzek gutxieneko kalitate-maila bat izatea bermatzeko, prezioa baloratu aurretik. Dena dela, prozedura hori diseinatzeko arreta berezia behar da, tratu-berdintasunaren, gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak errespetatzearekin koherentea den oreka lortzeko.

Hala, helburu estrategiko batzuetan oinarrituta kontratuaren objektuari lotutako printzipio horiek baliozkotu egiten dute aintzat hartzea kontratuaren prestazioaren ezaugarri kualitatiboetara buruzko adjudikazio-irizpideak, bai kontratuaren barne-alderdiei dagokienez (prestazioa egikaritzeari dagozkion elementuak), bai kanpo-alderdiei dagokienez (ingurumen-, gizarte- edo berrikuntza-jasangarritasunaren arloko politika publikoak).

f. Justifikazioa eta helburua

Haztapenaren banaketak behar hauei erantzuten die:

- Gardentasuna areagotzea prozedurarik arinenetan eta zenbateko txikienekoetan.

⁹ SPKLren 146. artikulua 3. apartatuko 2. paragrafoak xedatzen duenez, «adjudikazio-prozedura hainbat fasetan antolatzen bada, irizpide bakoitza zein fasetan aplikatuko den adieraziko da, eta irizpide kualitatibo guztien puntuazioaren ehuneko 50eko gutxieneko atalasea ezarriko da hautaketa-prozesuan aurrera egin ahal izateko».

¹⁰ Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2018/09/20ko Epaiak —Montte, C-546/16 (ECLI: EU.C: 2018:752)— adierazten duenez, 2014/24/EB Zuzentarauak aukera ematen die botere adjudikatzailerik prozedura irekietan gutxieneko puntuazio tekniko bat ezartzeko eskaintzetarako, prezioa baloratu aurretik puntuazio hori lortzen ez dutenak kanpoan gera daitezen, baldin eskakizun horrek gardentasunaren, berdintasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak errespetatzen baditu eta baldintza-agirietan berariaz jasotzen bada.

- Balorazio kualitatiboa handiagoa izateko aukera ematea, kalitate teknikoa eta kuantifikatu ezin diren beste alderdi batzuk kontratua behar bezala egikaritzeko erabakigarriak diren kontratuetan.
- Balorazioa kontratuaren izaerara eta arriskueta egokitzea, eta beti bermatzea irizpideak kontratuaren objektuarekin lotuta daudela, eta berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta gardentasunaren printzipioak errespetatzen direla.

SPKk ez du gutxieneko puntuaziorik ezartzen prezioaren irizpiderako, ez eta haztapen jakin bat agintzen duen araurik ere, salbu eta IV. eranskinen kontratuetan edo prestazio intelektualetan; horietan, kalitate-irizpideek gutxienez % 51koak izan behar dute (prezioa % 49ra mugatuta).

Kasu horretatik kanpo, prezioaren irizpidea % 1etik % 99ra bitartekoa izan daiteke kalitate-irizpideekiko, kontuan izan behar baitira kontratuaren objektuaren ezaugarriak eta botere adjudikatzailerik kalitate-prezio erlaziorik onena bilatzeko duen diskrezionalitatea.

Kontratuaren kalitatearekin zerikusia duten elementuei lehentasuna emateko modu bat da prezioaren irizpideari kalitate-irizpideei baino garrantzi txikiagoa ematea haztapenean (ahal dela, kalitate-irizpideak automatikoki baloratuta).

Alde horretatik, kontuan hartu behar da legeak irizpide kuantitatiboak eta kualitatiboak bereizten dituela, alde batetik, eta balorazio automatikoko irizpideak eta balio-judizioaren mendekoak, bestetik.

Lehen bereizketan, irizpide kuantitatiboak kontratuaren prezioari eta bizi-zikloaren kostuari buruzkoak dira, gorago aipatu den bezala; irizpide kualitatiboak, berriz, prezioaz bestelakoak diren eta prestazioaren kalitate orokorrean eragiten duten alderdiak baloratzeko dira.

Bestalde, bigarren bereizketa kontuan hartzen bada, legeak ezartzen du irizpide kuantitatiboak formula automatikoen arabera baloratzen direla beti, eta kalitatearekin lotutako irizpideak, berriz, automatikoki zein balio-judizioen arabera balora daitezkeela. Izan ere, SPLKren 146.2 artikulua xedatzen duenez, «adjudikazio-irizpide ugari erabiltzen direnean, haiek aukeratzeko, lehentasuna emango zaie, ahal dela,... formulen aplikazio hutsez lortzen diren zifra edo ehunekoen bidez kontratuaren objektuan balora daitezkeen ezaugarriei buruzkoak direnei».

Horrenbestez, espediente jakin bat esleitzeko irizpideen diseinuari dagokionez, kontratazio-organoari haztapen bikoitza egitea dagokio:

- Alde batetik, prezioaren irizpidearen eta kalitate-irizpideen arteko haztapena, lehen aipatu den bezala, kasu bakoitzean oreka egokia bilatuz diru publikoa efizientziaz kudeatzeko, kalitatea eta inpaktu estrategikoa lehenetsiko dituzten kontratazio-erabakien bidez.
- Bestetik, balorazio automatikoko irizpideen eta balio-judizioaren mendeko irizpideen arteko haztapena, prozedura mota bakoitzera egokituz: prozedura arinenetan, objektibotasuna eta automatizazioa lehenetsita, eta kontratu konplexuetan edo intelektualetan, berriz, balorazio subjektiborako tarte handiagoa utzita. Banaketa horrek efizientzia administratiboa kontratazio publikoaren

kalitatearekin orekatu nahi du, betiere gardentasuna eta aukera-berdintasuna ziurtatuz lizitatzailerai.

g. Eskaintza ekonomikoak baloratzeko formulak

SPKLk ez du formula zehatzik ezartzen proposamen ekonomikoak baloratzeko. Kontratu-auzitegiek hainbat printzipio ezarri dituzte:

- Formulak eskaintzarik baxuenari eman behar dio gehieneko puntuazioa.
- Ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintzaren printzipioari jarraituz, a priori, ezin zaio puntuaziorik eman lizitazio-tasa hobetzen ez duen eskaintza bati¹¹.
- Formulak gainerako eskaintzak baloratu behar ditu, haien arteko nolabaiteko proportzionaltasuna gordez, eskaintza merkeenek beste eskaintza garestiago batzuek baino puntuazio handiagoa lortu dezaten.
- Ematen du balorazio lineala, non deskontuko moneta-unitate guztiek puntu kopuru bera duten, dela sistema egokiena prezioa hartzen denean adjudikazio-irizpidetzat, baina beste sistema proportzional batzuk ere onartzen dira.
- Auzitegi Gorenak, 2024ko martxoaren 5eko 381/2024 Epaian (7797/2020 Errekurtsoa, ECLI: ES: TS: 2024:1786), jurisprudenzia-doktrina ezarri du. Doktrina horren arabera, adjudikazio-irizpide bat baino gehiago kontuan hartzen duten kontratuak direnean, indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen erregulazioak ez du eragozpenik jartzen eskaintza ekonomikoen balorazioa mugatzen duten asetahun-indizeak edo -atalaseak baldintza-agirietan finkatzeko, baldin eta espedientean justifikatuta badaude kontratuaren objektu diren prestazioekin lotuta eta adjudikazio-irizpideei eta kontratazio publikoaren arloko printzipioei buruzko lege-xedapenak errespetatzen badituzte.

Argigarri izateko baino ez den adibide bat jarriko dugu. Jarraian deskribatzen den formulak inflexio-puntu zentral bat hartzen du (aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa), eta horrek malda asimetrikoak dituen funtzio jarraitu bat sortzen du. Sistemak sentsibilitate txikiko lehen tarte bat sortzen du gutxieneko eskaintzaren eta batezbestekoaren artean, eta puntuazioaren % 5 baino ez da erabakiko tarte horretan, ausarkeriazko bajen pizgarria neutralizatzeko eta egonkortasun ekonomikoari lehentasuna emateko. Aitzitik, sentsibilitate handiko bigarren tarte batek esponentzialki gehiago zigortzen du batez besteko prezioetik gorantz urruntzea, eta efizientzia-iragazki gisa jarduten du, proposamenen lehiakortasuna bermatzeko merkatuari dagokionez.

Lizitazio-prozeduran onartutako proposamen ekonomikoen puntuazioa zehazteko, ehun (100) puntu emango dira gehienez. Puntuazio hori kalkulatzeko, eskaintako

¹¹ Kontuan hartu behar da 177/2025 Ebazpena, abenduaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren titularrarena, EAEJANren 2021eko urtarrilaren 18ko 16/2021 Epaiaaren doktrina jasotzen duena (ECLI: ES: EAEJAN: 2021:274).

prezioaren eta eskaintza onargarrien batezbestekoaren arteko erlazioa hartuko da kontuan, arau hauen arabera:

$P_{\text{gutxienerkoa}}$ (eskaintako gutxienerko prezioa): Onartutakoen artean zenbateko txikiena duen proposamenari 100 puntuko gehieneko kalifikazioa emango zaio.

$P_{\text{batez bestekoa}}$ (Multzoaren batez besteko prezioa): Baztertu ez diren eskaintza guztien batezbesteko aritmetikoa 95 punturekin baloratuko da.

Kalkulua egiteko, "eskaintako gutxienerko prezioztat" hartuko da eskaintzarik baxuenarena, baldin normala ez den balio gisa edo neurritz kanpoko balio gisa kalifikatu ez bada, baldintza-agiri honetan nabarmenki baxuei ezarritako eskaintza-parametroen arabera, eta, hala badagokio, justifikazio-prozedura egin ondoren.

Kalkulatzeko metodologia

A) Eskaintako gutxienerko prezioaren eta batez besteko prezioaren artean dauden eskaintzak ($P_{\text{gutxienerkoa}} \leq O_i \leq P_{\text{batez bestekoa}}$):

Zenbatekoa (O_i) gutxienerkoa edo hura baino handiagoa izanik batezbesteko aritmetikoa gainditzen ez duten proposamenen kasuan, puntuazioa (S_i) adierazpen hau aplikatuz lortuko da:

$$S_i = 100 - 5 * \left(\frac{O_i - P_{\text{gutxienerkoa}}}{P_{\text{batez bestekoa}} - P_{\text{gutxienerkoa}}} \right)$$

Bertan:

S_i : Ebaluatutako eskaintzaren azken kalifikazioa.

O_i : Aztergai den proposamen ekonomikoaren zenbatekoa.

$P_{\text{gutxienerkoa}}$: Onartutako eskaintzarik merkeenaren zenbatekoa.

$P_{\text{batez bestekoa}}$: Onartutako eskaintza guztien zenbatekoen batezbesteko aritmetikoa.

B) Batez besteko prezioetik gorako eskaintzak ($O_i > P_{\text{batez bestekoa}}$):

Kalkulatutako batezbesteko aritmetikoa gainditzen duen kostua (O_i) daukaten proposamenen puntuazioa (S_i) zehazteko, 95 puntuak murriztuko dira batezbesteko horretatik gorako aldearen proportzioan, formula honen arabera:

$$S_i = 95 - 95 * \left(\frac{O_i - P_{\text{batez bestekoa}}}{P_{\text{batez bestekoa}}} \right)$$

Arau absolutua: Lizitazio-aurrekontua berdintzen duen eskaintzak 0 puntu lortuko ditu.

Ohar teknikoa: Atal honetako balorazioaren azken emaitza bi zifra dezimalekin adieraziko da, eta biribiltze estandarra bigarren digituari aplikatuko zaio.

Nolanahi ere, formula aukeratzean, kontratu bakoitzaren ezaugarriak hartu behar dira kontuan, benetako lehiari eta kalitate-irizpideekiko haztapenari dagokienez.

5. IRIZPIDE AUTOMATIKO EDO OBJEKTIBOEN ADIBIDEAK

- Kalitatea eta balio teknikoa: Barnean hartzen ditu berrikuntza, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, esperientzia profesionala¹², irisgarritasuna, diseinu unibertsala, iraunkortasuna, efizientzia eta prestazioaren moldagarritasuna.

Alde horretatik, sar daitezke zenbait teknologia ezartzea (alegia, kontratua egikaritzean efizientzia, prozesuak digitalizatzea edo berrikuntza-soluzioak txertatzea areagotzen dutenak) baloratzen duten irizpideak, baldin kontratuaren objektuan behar bezala justifikatuta badaude.

- Ingurumen-ezaugarriak¹³: Emisioak murriztea, energia-efizientzia, energia berriztagarriak erabiltzea, hondakinak kudeatzea, material birziklatuak edo ekologikoak erabiltzea, eta ingurumen-jasangarritasunari laguntzen dion beste edozein alderdi¹⁴.

¹² Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2015eko martxoaren 26ko Epaiak (auzia: C-601/13 Ambisig. ECLI: EU: C: 2015:204) adierazten du esperientzia profesionala kaudimen teknikoko irizpide gisa zein adjudikazio-irizpide gisa, baita aldi berean ere, erabil daitekeela kontratazio publikoko prozeduretan, baldin helburuak argi bereizten badira eta baldintza jakin batzuk betetzen badira. Kaudimen-irizpide gisa baloratzeko, antzeko kontratuaren duen alde aurreko esperientzia egiaztatzen eskatzen zaio enpresa lizitatuari, eta horrek lizitazioan sartzeko gutxieneko atalase bat ezartzeko balio du, eta enpresaren ibilbideari eta enpresako langileen kualifikazioari lotuta dago. Adibidez, eska daiteke kontratistak kontratuaren objektuaren antzeko proiektu bat, gutxienez, egin izana. Eta adjudikazio-irizpide gisa, kontratua gauzatzeko proposatutako lantaldearen kalitatea, antolaketa, kualifikazioa eta esperientzia balora daitezke, baldin eta langile horien kalitateak eragin nabarmena izan badezake kontratua egikaritzean. Balorazio horrek kaudimen gisa eskatutako gutxienekoa gainditzen duten alderdiei buruzkoa izan behar du, eta kontratuaren objektuari objektiboki lotuta egon behar du.

Europako jurisprudentziak eta SPKLk aukera ematen dute kontratuari atxikitako langileen esperientzia eta kualifikazioa adjudikazio-irizpide izateko, zerbitzu intelektualen kontratuetan bereziki, baldin gardentasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzen badira, irizpideak objektiboak badira eta kontratazio-organoari erabakitzeak askatasun mugagabea ematen ez badiote. Alabaina, ez da onargarria esperientzia-eskaera sektore publikoko entitateekin egindako kontratuetara soilik mugatzea; izan ere, hori diskriminatzailea izango litzateke eta berdintasunaren eta lehia askearen printzipioak urratuko litzateke, eta, ondorioz, deuseztagarritasuna ekarriko luke. Horri dagokionez, KEAren 59/2019 eta 33/2022 ebazpenak ere kontsultatu daitezke.

Ondorioz, esperientzia profesionala kaudimen- eta adjudikazio-irizpide izan daiteke, baina xede desberdinekin eta lege- eta gardentasun-mugak errespetatuz, eta adjudikazio-irizpide gisa ezartzen den balorazioa kaudimenerako eskatutako gutxieneko mailaren gainetik jarri behar da.

¹³ Adibideak kontsultatu daitezke 1/2023 Jarraibidean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Erakunde Administrazioaren eta Sektore Publikoa osatzen duten gainerako erakundeen erosketan eta kontratazioan ingurumen klausulak txertatzeari buruzkoan. Jarraibide hori IHOBek eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak batera idatzi zuten. Ikusi esteka hau: [Jarraibideak-1-2023-txertatzea-klausulak-ingurumenak-formatuak.pdf](#)

¹⁴ KEAren 084/2017 Ebazpenak, besteak beste, «hondakinak kudeatzeko instalazioaren hurbiltasuna» kontuan hartzen duen adjudikazio-irizpidearen legezkotasuna aztertzen du, Osakidetza izapidetutako ospitaleko hondakinak biltzeko, garraiatzeko eta ezabatzeak kontratuan. Irizpide hori berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta, bereziki, proportzionaltasunaren printzipioekin bateragarria den aztertzen da.

Botere adjudikatzaileak hurbiltasun-irizpidea sartzearan alde egin zuen, Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudian oinarrituta; izan ere, araudi horrek hurbiltasun-printzipioa jasotzen du hondakinen kudeaketan (1013/2006 Erregelamendua, 2008/98/EE Zuzentaraua). Printzipio horren arabera, sortzen diren lekutik ahalik eta hurbilen tratatu behar dira deuseztatu beharreko hondakinak, ingurumena babesteko eta garraioari lotutako arriskuak murrizteko.

Ebazpenak Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2005eko urriaren 27ko Epaiak aipatzen du (C-243/03 auzia), lurraldean errotuta egotean oinarritutako adjudikazio-irizpideak ezartzeko aukera onartzen duena, baldin modu ez-diskriminatzailean

Horrela, ingurumen-ziurtagirien eskakizuna sar daiteke eskaintzetan, baldin eta kontratuaren objektuarekin lotuta badaude, eskaintako prestazioaren kalitatea benetan baloratzeko aukera ematen badute (adibidez, Europako etiketa ekologikoa, ISO 14001, etab.) eta baliokidetasuna onartzen bada.

Alderdi hauekin lotutako irizpideak ere sar daitezke: kontratua egikaritzean berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea; obran, zerbitzuetan edo eragiketetan, energia-efizientzia aurreratuko soluzioak, energia berriztagarrien erabilera edo teknologia garbiak sartzea; hondakinen kudeaketa integralerako plan bat ezartzea, zeinak bermatu behar baitu minimizatzea, bereiztea eta balorizatzea, edota prestasioari lotutako aztarna ekologikoa murriztea, edota kontratuari lotutako mugikortasun jasangarrian hobekuntzak proposatzea, hala nola flota elektrikoak edo emisio txikiak erabiltzea zerbitzuari datzekion joan-etorrietarako.

Halaber, gomendagarria da aipatutako 1/2023 Jarraibidea kontsultatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren, Erakunde Administrazioaren eta Sektore Publikoa osatzen duten gainerako erakundeen erosketan eta kontratazioan ingurumen-klausulak txertatzeari buruzkoa. Jarraibide horrek obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuari aplikatzeko oinarriko ingurumen-klausulen katalogo bat jasotzen du lehentasunezko 19 produktu-kategoriatan.

Era berean, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programak baliabide gehigarriak ematen ditu ingurumen-klausulak txertatzeko.

aplikatzen badira, interes orokorreko premiazko arrazoiek justifikatzen badituzte, lortu nahi den helburua bermatzeko egokiak badira eta helburu hori lortzeko beharrezkoa dena baino harago ez badoaz (proportzionaltasun-printzipioa).

KEAOK aztertzen du ea hurbiltasun-irizpideak proportzionaltasun-printzipioa betetzen duen. Printzipio horren arabera, lehia askea edo eskubideak murrizten dituen edozein neurri egokia izan behar du lortu nahi den helburu legitimoa lortzeko; horrez gain, beharrezkoa izan behar du (hau da, ezin da egon helburu bera lortzen duen eta hain murriztailea ez den beste neurririk), eta orekatua ere bai, halako moduan non neurriak eragindako onurek kalteak gainditzen dituzten.

Balorazioa egiterakoan, KEAOK faktore hauek aztertzen ditu:

- Diskriminaziorik eza: Irizpidea distantziaren arabera aplikatzen da, ez autonomia-erkidego jakin batean egotearen arabera, ezta lizitatzailereen nazionalitatearen edo egoitza sozialaren arabera ere.
- Justifikazioa: Irizpideak Europako eta Estatuko araudian aitortutako interes orokor bati erantzuten dio: hurbiltasun-printzipioa aplikatuz ingurumena babestea.
- Proportzionaltasuna: Irizpidea ez da baztertzailera, ez baita onartua izateko nahitaezko baldintza bat, balorazio-elementu bat baizik. Puntuazio orokorrean duen garrantzia txikia da (% 7). Balorazioa distantzian soilik oinarritzen da, autonomia-erkidego jakin batean egotea eskatu gabe, eta ez da eskatzen instalazioa erabilgarri egotea eskaintza egiten den unean, ezta hari buruzko titulu zehatzik ere.

Beraz, KEAOK ondorioztatzen du hurbiltasun-irizpidea proportzionatua eta egokia dela, eta ez doala ingurumena babesteko helburua lortzeko beharrezkoa dena baino harago.

Ondorioz, hurbiltasun-irizpidea, baldintza-agirietan konfiguraturata zegoen bezala, bat dator Europako araudiak eta jurisprudentziak eskatzen dituzten berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta proportzionaltasunaren printzipioekin.

- Ezaugarri sozialak¹⁵: Desgaitasuna¹⁶ duten edo gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea; genero-berdintasuna¹⁷; lana eta familia bateragarri egitea¹⁸; lan-baldintzak hobetzea;

¹⁵ Ikus abokatu nagusiaren ondorioak C-210/24 auzian (Asociación de Empresas de Servicios para la Dependencia-AESTE, Ortuellako Udalaren aurka), Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak egindako epaitu aurreko erabakiaren eskaerari dagokionez.

Izaera sozialeko adjudikazio-irizpideak erabiltzeari dagokionez — eta, bereziki, kontratua egikaritzeari atxikitako langileen soldata-baldintzak hobetzeari buruzkoak —, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Irizpide sozialak adjudikazio-irizpide gisa onartzea. art. 2014/24/EB Zuzentarauaren 67. artikulua aukera ematen du irizpide sozialak adjudikazio-irizpide gisa sartzeko, betiere gardentasunaren, tratu-berdintasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioen arabera eraten badira.
- Kontratuaren xedearikiko lotura. Soldata igotzeko irizpide bat kontratuaren xedearekin lotuta egon daiteke, baldin eta prestazioaren betearazpenean eragiten badu, bereziki gizarte-zerbitzuen kontratuetan, zeinetan langileen lan-baldintzek zerbitzuaren jarraitutasunean eta kalitatean eragina izan baitezakete. Lotura horrek justifikazio zehatza eskatzen du kontratuaren testuinguruan.
- Haztapenaren proportzionaltasuna. Irizpide sozialaren pisuaren egokitzapena kasuz kasu aztertu behar da, kontratuaren izaera eta irizpide multzoa kontuan hartuta, aurrez zehaztutako ehuneko abstrakturik egon gabe; haztapena handia izan daiteke kontratu sozial jakin batzuetan, betiere proportzionatua bada.
- Berdintasuna eta diskriminaziorik eza (eragin potentziala ETEetan). Ohartarazten du zeharkako diskriminazioaren arriskua egon daitekeela irizpideak ahalmen ekonomiko txikiagoa duten operadoreei kalte egiten badie (adibidez, ETEei), nahiz eta uste duen haren eragina mugatua izan daitekeela inguruabarren arabera; nolahi ere, organo nazionalari dagokio berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera egiaztatzea.
- Negoziazio kolektiboa Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutunaren 28. artikulua). Irizpidea negoziazioa sustatuz artikulatzen denean — adibidez, gehikuntzak negoziatzera behartuz eta atxikitako langileentzako berariazko hitzarmen-tresna bat formalizatzen "behartuz" —, abokatu nagusiak ondorioztatzen du ez dela urratzen Gutunaren 28. artikulua, mekanismoak autonomia kolektiboa oztopatzen ez duen heinean, baizik eta hura bultzatzen duen heinean. Ondorioz, ondorio horien arabera, esleipenean soldata-igoera bezalako irizpide sozialak sartzera bateragarria izan daiteke 2014/24/EB Zuzentarauarekin, baldin eta kontratazio-organoak xedearikiko benetako lotura bermatzen badu, arau gardenak eta egiaztatgarri definitzen baditu, eta haztapen proportzionatua eta ondorio diskriminatzailek ez dakarrena arazoitzen badu.

¹⁶ KEAOK, azaroaren 10eko 196/2023 Ebazpenean, adierazten du adjudikazio-irizpideak ezin direla izan organo adjudikatzailea ez lotesteko bezain lausoak edo generikoak, horrek arbitrariotasuna erraztu eta tratu-berdintasunaren printzipioa urratuko bailuke. Ildo horretatik, SPKLren 145. artikulua eskatzen du irizpideak objektiboak eta gardenak izan daitezela, eta ez dezatela eman erabakitze askatasun mugagaberik.

Kasu zehatz honetan, balio-judizioari lotutako adjudikazio-irizpidea (balorazio teknikoa) ez-nahikotzat eta ez oso gardentzat jotzen da; izan ere, lizitatzaileri ez die aukerarik ematen ezagutzeko zer alderdi baloratuko diren positiboki, eta horrek ezinezko bihurtzen du eskaintzen konparazio objektiboa egitea. Atalase baztertzaila bat egoteak indartu egiten du irizpideak gardenak eta zehatzak izateko beharra, hura gainditzeak baldintzatu egiten baitu prozeduran jarraitu ahal izatea.

Uste da aurkaratutako irizpide soziala (desgaitasuna duten pertsonen ehunekoak) ez dagoela lotuta kontratua egikaritzearekin, enpresaren antolamendu orokorrearekin baizik, eta horrek SPKLren 145.2.1 artikulua eta Europako doktrina urratzen ditu. Gogorarazten da irizpide sozialek kontratuaren objektuarekin lotuta egon behar dutela, eta ez erantzukizun korporatiboko politika orokorrekin.

KEAOK argudiatzen du SPKLk ez duela eskatzen irizpide guztiak zehatz-mehatz justifikatzeko, berariaz aurreikusitako kasuetan izan ezik (SPKLren 116.4 art.). Arrazoirik ez ematea, beraz, defentsa-gabezia sortzen duenean soilik da deuseztatze kausa, eta kasu honetan ez da hala gertatzen, errekurtsogileak errekurtsua artikulatu ahal izan baitu. Beraz, errekurtsua partzialki baiesten du, eta balorazio teknikoari buruzko klausula (gardentasun eta zehaztasun faltagatik) eta irizpide sozialei buruzko klausula (kontratuaren objektuari lotuta ez egoteagatik) balio gabetzen ditu.

Ebazpenak agerian uzten du zein garrantzitsuak diren gardentasuna, objektibotasuna eta kontratuaren objektuarekiko lotura adjudikazio-irizpideen konfigurazioan. Zehaztasunik ezak eta kontratuaren objektuari lotuta ez dauden irizpideak sartzeak baldintza-agiriak eta lizitazioa deuseztatzea ekar dezake, kontratazio publikoan berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta gardentasunaren printzipioak defendatzeko.

¹⁷ Adibideak kontsultatu daitezke 1/2024 Jarraibidean, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzkoan. Ikusi esteka hau: [2401563e.pdf](#)

¹⁸ Ikusi: Kontratuari buruzko Errekurtsoen Auzitegi Administrazio Nagusiaren 2025eko urtarrilaren 23ko 0090/2025 Ebazpenak zerbitzu-kontratu baten adjudikazioaren aurkako errekurtsu bat jorratzen du. Errekurtsu horretan, 2/2024 Lege Organikoak aldatutako SPKLren 71.1.d) artikulua aplikazioa aztertzen da. Nabarmentzekoak dira ebazpenaren alderdi hauek:

1.- Berdintasun-plana, nahitaezko baldintza gisa: Lege-aldaketaren ondoren, berretsi egiten da 50 langile edo gehiagoko enpresek berdintasun-plan bat izan behar dutela inskribatuta dagokion lan-erregistroan. Inskribatuta ez egoteak sektore publikoarekin kontratatzeke debekua ekar dezake.

enpleguaren egonkortasuna; prestakuntza eta laneko osasuna eta segurtasuna babestea; eta irizpide etikoak eta gizarte-erantzukizunekoak aplikatzea¹⁹.

Alde horretatik, irizpide bat sar daiteke atxikitako langileentzako prestakuntza-plan espezifiko bat ezartzeari buruz, haiek gaitasun digitaletan, jasangarritasunean, berrikuntzan edo laneko arriskuen prebentzioan trebatzeko, kontratua indarrean dagoen bitartean, esleitutako taldearen proportzio egiaztagarrian. Edo, are gehiago, kontratuari atxikitako langileen enpleguan egonkortasuna eta kalitatea eska daiteke, baldin kontratua egikaritzean modu positiboan eragiten duten iraupeneko edo antolamendu-hobekuntzako konpromisoak hartzea badu ondorio, betiere egiaztagarria eta kuantifikagarria izanez gero²⁰.

2.- KEAANen Osoko Bilkuraren 2024ko irailaren 26ko erabakia aplikatzea: Erabaki horrek ezartzen du nola aplikatu behar den kontratatzeke debekua berdintasun-plana inskribatuta ez izateagatik. Aztertutako kasuan, ez da aplikatzen inskripzioa eskatu duten eta hiru hilabetearen erantzunik jaso ez duten enpresentzat aurreikusitako salbuespena (administrazio-isiltasun positiboa).

3.- Ez da onartzen kontziliazio-plana ordeztu irizpide gisa: Eskuragarri dagoen testuan esplizituki aipatzen ez bada ere, ondorioztatzen da kontziliazio-planak ez duela araudiak eskatzen duen berdintasun-plana ordeztu eta ez dela haren balioidea. Beraz, ezin da erabili kontratatzeke debekurik ez izateko baliozko irizpide gisa.

Era berean, ikusi KEAANen 2025eko urtarrilaren 15eko 0042/2025 Ebazpena; bertan, auzitegiak irizpide sozial bat proposatzen zuen adjudikazio-klausula bat (desgaitasuna edo laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen etorkizuneko kontratazioa) balio gabetuz du, kontratuaren objektuarekin loturarik ez izateagatik. Uste du ez duela betetzen kontratuaren objektuarekiko lotura-printzipioa, zeina SPKLren 145. artikulua eskatzen baitu. Arrazoibide hori beste irizpide sozial batzuetara estrapola daiteke (adibidez, kontziliazio-neurrietara), kontratuaren objektuarekin zuzenean lotuta ez badaude.

¹⁹KEAOren irailaren 15eko 143/2021 Ebazpenak aztertzen du ea gizarte-erantzukizuneko sistema bat izateko irizpidea kontratuaren objektuarekin benetan lotuta dagoen; hau da, lizitazioaren xede diren energia- eta mantentze-zerbitzuen prestazioari eragiten dion edo hobetzen duen. Aurkaratutako irizpideak enpresa lizitazioarekin ezaugarri orokor bat baloratzen du (gizarte-erantzukizuna kudeatzeko sistema bat edukitzea), baina ez du egiaztatzen edo justifikatzen ezaugarri horrek nola hobetzen duen kontratua egikaritzeko modu zehatza, edo zer eragin duen hartan.

Ebazpen horrek adierazten du SPKLren 145.2.1 artikulua aukera ematen duela irizpide sozialak sartzeko, baldin kontratuaren objektuari lotuta badaude. KEAOk gogorarazten du 2014/24/EB Zuzentarauak eta haren 97. kontuan hartuzkoak kanpoan uzten dituztela enpresaren erantzukizun korporatiboaren politika orokorrari buruzko irizpideak, salbu eta kontratuaren objektuarekin lotura zuzena badute. Era berean, adierazten du KEAANen urriaren 26ko 972/2018 Ebazpenak eta KEAOren abenduaren 27ko 186/2018 Ebazpenak baztertu egiten dutela kontratu-prestazioaren bereizgarri izan gabe enpresaren bereizgarri diren elementuak baloratzea.

KEAOk ondorioztatzen du aurkaratutako adjudikazio-irizpideak ez duela betetzen kontratuaren objektuarekiko loturaren baldintza, eta enpresaren betekizun orokor bat dela, ez kontratu-prestazioarena. Espedientean ez da justifikatzen nola hobetzen duen kontratua egikaritzeko modua gizarte-erantzukizuna kudeatzeko sistema bat izateak. Horrenbestez, irizpidea balio gabetu egiten da eta, ondorioz, lizitazioa bertan behera geratzen da.

Azpitarratu behar dugu ebazpen horren arabera ez dela baliozkoa gizarte-erantzukizuna kudeatzeko sistemak eskatzea adjudikazio-irizpide gisa, baldin kontratuaren objektuarekin zuzeneko harremana duela justifikatzen ez bada. Hala, enpresaren politika orokorraren balorazioa (gizarte-erantzukizuna, adibidez) onargarria izateko, kontratuaren objektu den prestazio zehatzean eragina izan behar du. Irizpide sozialak sartzek behar bezala arrazoituta egon behar du, eta kontratu-prestazioaren hobekuntzari lotuta.

Ebazpen horrek indartu egiten du kontratazio publikoko prozeduretan irizpide sozialak oinarritzeko eta kontratuaren objektuarekin lotzeko beharra, lehia justifikaziorik gabe diskriminatzea edo murriztea ekar dezakeen baldintzarik ez sartzeko.

²⁰ Ikusi KEAANen 695/2021 Ebazpena, zeinak baliozkoitu egiten baitu irabazi-asmorik gabeko enplegu-zentro bereziekin azpikontratazioa erabiltzea, zerbitzu-kontratu bateko egikaritze-baldintza berezi gisa. SPKLren 215. artikulua ez du aukerarik ematen baldintza-agirietan nahitaezko azpikontratazioa ezartzeko, azpikontratazioa aukerakoa baita kontratistarentzat. Alabaina, legezkoa da egikaritze-baldintza berezi gisa ezartzea kontratuko prestazio jakin batzuk enplegu-zentro berezien bidez, gizarteratzeko eta laneratzeko zentroen bidez edo enplegu babestuko programei atxikitako enpresen bidez emango direla.

Halaber, adierazten du baldintza horiek SPKLren 202. artikulua arabera jaso behar direla, zeinak aukera ematen baitu gizarte-, lan- eta ingurumen-alderdiak egikaritze-baldintza berezi gisa sartzeko. Era berean, argudiatzen du administrazio-kontratua aldebikoa dela (Administrazioaren eta adjudikaziodunaren artekoa), eta ezin diela betebeharririk ezarri hirugarrenei (azpikontratazio gisa). Baina kontratistak bere borondatez azpikontratatzea erabakitzen badu, baldintza-agirian ezarritako egikaritze-baldintza bereziak bete behar ditu, sozialak barne.

- Langileen antolaketa, kualifikazioa eta esperientzia: Baldin eta atxikitako langileen kalitateak eragin nabarmena izan badezake kontratua egikaritzean.

Kontratuari atxikitako langileen kualifikazioaren adibidea

Irizpidea: Kontratuari atxikitako langileen kualifikazioa

Haztapena: Y puntu

Formula: Puntuazio handienarekin (Y puntu) baloratuko da kualifikazio handiena duen eskaintza, eta 0 punturekin lizitazioaren gutxienerako baldintzak baino betetzen ez dituen eskaintza. Tarteko eskaintza ekonomikoak baloratzeko, formula hau aplikatuko da:

$$P = Y \times \frac{P_{gk}}{P_{kh}}$$

Bertan:

P_{gk}: Eskaintzaren guztizko kualifikazioaren puntuazioa

P_{kh}: Kualifikazio handieneko eskaintzaren puntuazioa

- Saldu osteko zerbitzua, laguntza teknikoa eta entregatzeko baldintzak: Barnean hartzen ditu entrega-data eta -epea²¹, entrega-prozesua, ordezko piezen inguruko konpromisoak eta horniduraren segurtasuna.

Entregatzeko epearen adibidea

Irizpidea: Oinarrizko proiektua edo egikaritze-proiektua entregatzeko epea.

Haztapena: Y puntu.

Formula: Gehieneko puntuazioarekin (Y puntu) baloratuko da entregatzeko epea 4 aste, guztira, murriztutako oinarrizko proiektua edo egikaritze-proiektua, eta 0 punturekin lizitazioaren gehieneko epea baliatzen duen eskaintza.

Tarteko eskaintzak baloratzeko, epe horien proportzioan baloratuko dira, formula honen arabera:

$$P = Y \times \frac{(\text{Lizitazioaren gehieneko epea} - \text{eskaintako epea})}{(\text{Lizitazioaren gehieneko epea} - \text{gutxienerako epea})}$$

Epe-murrizketak zenbatzeko, aste osoak hartuko dira kontuan.

6. KONTUAN HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI GARRANTZITSU

1.- Ekonomiaren aldetik eskaintza onuragarriena behar bezala hautatzen dela bermatzeko eta kontratazio publikoan kalitate-prezio erlazio onena lortzeko, zorrotz bete behar dira tratu-berdintasunaren, gardentasunaren, diskriminaziorik ezaren, proportzionaltasunaren eta

Ondorio gisa, KEAANek baieztatzen du enplegu-zentro bereziekiko azpikontratazioa ezin dela betebeharrak gisa ezarri, baina eska daitekeela egikaritze-baldintza berezi gisa, baldin kontratistaren borondatea eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatzen badira.

²¹ Obra-kontratueta eta obra-proiektuak idazteari buruzko zerbitzu-kontratueta, amaiera-epea ez da inola ere esleipen-irizpide gisa sartuko. Obra-kontratuak gauzatzen diren bitartean, enpresa adjudikaziodunek.

lehiaren printzipioak adjudikazio-irizpideak formulatzean. Gainera, SPKLk agintzen du txertatzen diren irizpideek kalitate handiko prestazioak, onura publiko aitortukoak eta interes orokorretara egokitutakoak lortzeko aukera eman behar dutela.

2.- Adjudikazio-irizpideek, argiak eta objektiboak izateaz gain, kontratuaren objektuari lotuta egon behar dute, SPKLren 145. artikulua araberak. Irizpide horiek kontratuaren objektu diren prestazioei buruzkoak izan behar dute zuzenean edo zeharka, eta lotura nahikotzat joko da haien bizi-zikloaren edozein alderdiri edo etapari eragiten diotenean (barne direla ekoizpen-, prestazio- edo merkaturatze-prozesuak), edo kontratuaren bizitzako etapa osagarri baina garrantzitsuei eragiten dietenean. Irizpideak objektiboki formulatzeko, kontratazio-organoak alde batera utzi behar du diskrezionalitate mugagabe oro, eta bermatu behar du lizitatzaille guztiek alde aurretik eta baldintza berdinetan ezagutu ahal izango dutela eskaintzak baloratzeko sistema.

Irizpide horiek administrazio-klausula partikularren agirietan edo deskripzio-agirian ezarriko dira, eta lizitazio-iragarkian agertu beharko dute, zehazki adierazita zer baldintza, muga, modalitate eta ezaugarri aplikatu behar diren, bereziki hobekuntza gisa jarduten dutenean.

3.- Kontratuaren objektuarekiko loturaren printzipioak ezartzen duenez, adjudikazio-irizpideek, gizarte- eta ingurumen-izaerakoak barne, harreman zuzena eta egiaztagarria izan behar dute kontratuaren objektuarekin. Eskaintza bakoitzak kontratuaren objektuarekiko duen errendimendua neurtzeko aukera ematen duten irizpideak izango dira onartutako bakarrak (objektu horrek zehaztaperen teknikoetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan duen definizioa hartuko da kontuan). Ez dira onartuko gizarte- edo ingurumen-irizpide erretoriko hutsak edo edukirik ez dutenak, salbu eta justifikatuta dagoenean prestazioaren exekuzioaren kalitatean edo errendimenduan duen eraginari dagokionez.

Debekatuta dago enpresa lizitatzailari buruzko baldintzak erabiltzea, kontratuaren prestazioa benetan hobetzen dutela egiaztatzen ez badute; adibidez, gizarte-erantzukizuneko konpromiso orokorrak, enpresa barneko berdintasun-planak edo kontratuaren egikaritze espezifikoarekin zerikusirik ez duten ingurumen-plan orokorrak.

4.- Funtsezkoa da lizitazio- eta adjudikazio-fasean tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea, lizitatzaille guztiek benetako berdintasun-baldintzetan parte hartzen dutela bermatzeko. Baldintza-agiriek eta adjudikazio-irizpideek ez dute klausula ilun, anbiguo edo diskriminatzaileak izan behar, eta ez dute eragin behar, zehaztasunik gabeak izateagatik, gardentasunari eta lehia askeari kalte egiten dioten interpretazio aldakorrik. Aurkaratzeko eta baliogabetzeko arrazoi izan daiteke behar bezain zehatzak ez diren elementuak, neurritz kanpoko balorazioak edo justifikatu gabeko lurralde-errotzeak sartzea.

Era berean, aplikatutako irizpideek ezin dute berez ekarri benetako lehia desagerraraztea edo lizitatzaille jakin baten alde aurreko hautaketa.

5.- Adjudikazio-irizpideek espezifikoak, kuantifikagarriak eta modu objektibo eta justifikatuan ebaluatzeko modukoak izan behar dute, eta eskaintzak benetan konparatzeko aukera eman behar dute, baldintza-agirietan behar bezala zehaztutako formula edo arauen bidez. Irizpide edo azpi-irizpide bakoitzari esleitutako haztaperen erlatiboa zenbakiz edo balio-banden bidez islatu behar da baldintza-agirietan (salbu eta justifikazio objektiboa dagoenean), lizitatzailleek irizpide bakoitzaren garrantzia alde aurretik ezagutzeko aukera izan dezaten. Horregatik,

txosten teknikoak irizpide bakoitzari emandako puntuazioak justifikatu beharko ditu, egoera arbitrarioik edo segurtasun juridikoaren aurkakorik izan ez dadin.

Ahal den guztietan, lehenetsuna eman beharko zaio irizpideak baloratzeko formula automatiko eta objektiboak erabiltzeari, kuantifika daitezkeen alderdiak direnean bereziki. Formula matematikorik aplikatu ezin denean, irizpidea zehatz-mehatz deskribatu beharko da, eta etorkizuneko kontratu-egikaritzeari buruzko eskakizun zehatzak ezarri beharko dira, balorazioa objektiboa izan dadin guztientzat.

6.- SPKLk ezartzen duenaren arabera, IV. eranskineko zerbitzu-kontratuetan eta izaera intelektualeko kontratuetan (adibidez, ingeniariaritzak edo arkitektura), kalitatearekin hertsiki lotutako irizpideek hartu behar dute eman daitekeen puntuazioaren % 51, gutxienez. Kontratazio-organoak kalitate handiko obrak, hornidurak eta zerbitzuak lortzeko aukera ematen duten irizpideak sartzeari arduratuko dira, eta, horretarako, ebaluazio-irizpideak bat etorriko dira kontratazioa justifikatzen duten helburu estrategikoekin eta interes publikoko helburuekin.

Eskakizun horrek faktore kualitatiboak, ingurumenekoak eta sozialak sartzeari sustatzen du, faktore horiek, kontratuaren objektuari modu egokian lotuz gero, prestazioa bikaintasunaren, jasangarritasunaren eta balio erantsiaren estandar hobekak lortzera bideratu dezaten.

7.- Adjudikazio-irizpide gisa hobekuntzak aurreikusten badira, behar bezala zehaztuta egon beharko dute baldintza-agirietan, eta hobekuntza horiek argi eta garbi identifikatzeko aukera ematen duten baldintzak, mugak, modalitateak eta ezaugarriak adierazi beharko dira. Proposatutako hobekuntzek sinatutako kontratuaren zati izatera igaro behar dute, eta ezingo dira gerora aldatu. Aldez aurretik zehaztutako irizpideetan oinarritzen ez den hobekuntzen balorazioak berdintasun-printzipioa urratzen du, eta deuseztasuna ekar dezake.

Era berean, balio-judizioen mendeko irizpideetan, haztapena eta aplikazio-arauak publikoak izango dira, anbiguotasunik edo zehaztugabetasunik ez egoteko.

8.- Adjudikazio-irizpideak diseinatzeko, sartzeko eta aplikatzeko faseak arrisku hauek prebenitzera bideratuta egon behar du: irizpidearen zehaztasunik edo argitasunik eza, kontratuaren objektuari lotuta ez dauden eta ondorio diskriminatzaileak dituzten elementuak sartzeari, eskaintzen balorazioan diskrezionalitate handiegia izatea edo balorazio-formuletan muga edo atalase arbitrarioak sartzeari.

Ez dira onartuko beren izaeragatik, balioagatik edo mailagatik justifikaziorik ez duten irizpideak, ez eta adjudikazioduna aldez aurretik hautatzea eragin dezaketena ere, edo ETEen edo Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako operadoreen partaidetzan murrizketa neurrigabeak ezar ditzaketena oinarri objektiborik gabe.

9.- Eskaintza nabarmenki baxuegiak eta kalitate-bermea

Baldintza-agiriek nabarmenki baxuegiak diren eskaintzak identifikatzeko parametroak jaso behar dituzte, SPKLren 149. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ustez anormalak diren eskaintzek dagokien bideragarritasun-justifikazioa aurkeztu beharko dute, eskaintako prezioaren maila baxua azaltzeko eta kontratua behar bezala egikaritzeko dela bermatzen dela justifikatzeko.

Eskaintza osorik justifikatzeko eskatuko da; eskaintzako xehetasun guzti-guztiak justifikatzeko eskatzen ez bada ere, ezin dira eskaintzaren osagai garrantzitsuak behar bezala justifikatu gabe utzi. Justifikazioak ezin du eskaintzaren bideragarritasuna egiaztatze nahia izan, baldin hasieran proposatutakoez bestelako baldintzetan edo kasu desberdinetan egikaritzea proposatzen badu, eskaintza aldatzea ekarriko bailuke, eta hori ez da onargarria.

Galerazko salmenta onargarria da merkataritza-estrategia gisa, kontratua behar bezala egikaritzea arriskuan jartzen ez badu. Alabaina, eskaintza horiek baztertu egin daitezke ekonomikoki edo juridikoki desegokiak diren praktiken ondorio badira (lehiakideak merkatutik kanporatzeko prezio harrapakariak, adibidez).

Aztertutako eskaintza tarte txikiagatik bada ustez anormala, lizitatzaillearen justifikazio-ahalegina txikiagoa da, eta bazterketaren alde egiten duen botere adjudikatzaillearen motibazioak sendoagoa izan behar du. Aitzitik, ausarkeria-atalasea nabarmen gaintitzen bada (bereziki lizitatzaille susmagarria gainerako proposamenetatik asko urruntzen bada), ahalegin handiagoa egin behar da eskaintzaren bideragarritasuna justifikatzeko.

Kontratu-errekurtsoen auzitegiak zorrotzak dira eskaintza bat eskaintako prezioaren maila baxua behar bezala ez justifikatzeagatik baztertzeko motibazio indartua eskatzen dutenean, eta kontratazio-organoak behar bezala arrazoitu behar du baztertzeko erabakia.

Azken batean, adjudikazio-irizpideak behar bezala aplikatzeko, argiak eta objektiboak izan behar dute, kontratuaren objektuari lotuta egon behar dute beti, berdintasun-, gardentasun- eta lehia-printzipio legalak errespetatu behar dituzte, eta egokiak izan behar dute eskaintzen kalitatearen eta prezioaren konparazio-ebaluazio eraginkorra egiteko. Adjudikazio-erabakietan zenbait arrisku (diskriminazioa, arbitrariotasuna edo motibazio falta) ez izateko moduan formulatu behar dira, arreta berezia jarriz kalitatea irizpide kualitatibo kualifikatuen bidez sustatzean eta egikaritze-hobekuntzak edo -azpiirizpideak behar bezala justifikatzean. Betekizun horiek ez betetzeak baldintza-agirien erabateko deuseztasuna eta prozeduraren atzeraeragina ekar ditzake.

Beraz, kontratazio-organoei gomendatzen zaie ahalegina egin dezatela prezioaz bestelako irizpide objektiboak zehazteko eta sartzeko baldintza-agiriak idaztean, kontratua kalitate-prezio erlazio onena ematen duen eskaintzari adjudika dakion.